

FILIAZIO INSTITUZIONALAREN GIDA

Osakidetza^{ren}

ekoizpen zientifikorako izendapen bibliografiko bakarra



Osakidetza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

1. Sarrera
2. Nabarmendu beharreko puntuak
3. Egileen filiazio-aipamenen adibideak
 - Filiazio BAKARRA: Osakidetza
 - Filiazio BIKOITZA: Osakidetza
+ beste erakunde bat
 - Filiazio ANIZKOITZA: Osakidetza
+ beste erakunde batzuk
4. Egiletza-sinaduren normalizazioa



A white arrow pointing to the left, centered on a light blue background. The arrow has a rectangular shaft and a triangular head.

Sarrera

1 Sarrera

Argitalpen zientifiko baten egile orok beti izan behar du bere filiazio instituzionala. Filiazio egokiak zentroak komunitate zientifikoan (definizioz nazioartekoa) ikusarazten laguntzen du, bai eta ekoizpenari, inpaktuari, rankingari eta abarri buruzko adierazle bibliometrikoak fidagarriak izaten ere.

Euskal Sistema Sanitarioak I+G+b erakundeen mapa bat du, ezagutu eta aitortu egin behar dena. Horregatik, egiletza-aipamena eta filiazio instituzionala bateratu beharrari heldu zaio jarraibide batzuen bidez, [Osasuneko sailburuordearen 2019ko martxoaren 5eko Ebazpenaren bidez onartu zirenak](#) (apirilaren 16ko EHAA). 2019ko abenduaren 24an, [huts-zuzenketa](#) argitaratu zen.

Osasun Sailaren webgunean kontsulta dezakezu [bertsio kontsolidatua](#).

Jarraibideen xedea:

Jarraibideak nahitaez bete behar dira, eta horiek gidalerro batzuk eskaintzen dituzte irizpide berdinak aplikatzeko; irizpide horiek Euskal Sistema Sanitarioko edozein erakundetan lan egiten duten egileen izenak eta filiazioak bateratzea ahalbidetuko dute.

Gida honen xedea:

Lehen aipatutako jarraibideak aplikatuz, gida honetan aurkezten dira Osakidetza egileentzako filiazio-aipamenaren adibide zehatzak.

1 Sarrera

Zalantzarik izanez gero, jarri harremanetan zure erakundeko erreferentziazko pertsonarekin:

Eukene Ansuategi Zengotitabengoa

eukene.ansuategizengotitabengoa@osakidetza.eus





Nabarmendu beharreko puntuak

Nabarmendu beharreko puntuak

Ebazpenean ez dago lekuak aipatzeko gomendiorik.
[EAEko Izendegi Geografiko Ofiziala](#) kontsulta daiteke.

- egiletza-aipamena** | Argitalpen batean egiletza aipatzen denean, beti adierazi behar da egilea atxikita dagoen erakundearen/erakundeen filiazioa, azterlana egin den unean duena.
- lehentasun-ordena** | Aipamenean, oro har, lehentasun-ordena bat ezartzen da erakundearen entitate edo zati guztien artean, orokorretik zehatzera.
Gure kasuan, Osakidetzarako onartutako izena izango da goiburua, baldin eta egilea osasun ikerketako institutu bati atxikita ez badago.
- filiazio motak** | Filiazio bakarra (Osakidetza) eta filiazio bikoitza edo filiazio anizkoitza (Osakidetza + beste erakunde bat/zuk) bereizten dira.
Filiazio anizkoitzaren kasuan, egileek erakunde bakoitzaren jarraibideak bete beharko dituzte, baldin eta erakunde horiek Euskal Sistema Sanitariokoak ez badira (adibidez: UPV/EHU, Ikerbasque, CIBER ISCIII...).
Erakundeetako filiazioak puntu eta koma (;) bidez edo lerro independenteetan bereiziko dira. Gomendatzen da ahal den guztietan Osasun Ikerketa Institutuaren izena aipamenaren buruan adieraztea.
- egilearen sinadura** | Egilearen sinadura normalizatzeko, Ebazpenaren I. eranskinaren hirugarren ataleko argibideak jarraitzea gomendatzen da.

A large, white, stylized number '3' is centered on the page. It has a thick, rounded font style with a slight shadow effect.

Egileen filiazio-aipamenen adibideak

Filiazio BAKARRA: Osakidetza (adibidea)

Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Kardiologia Zerbitzuaren argitalpena	
Aipamen hedatua	
Euskara	Osakidetza, Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratua [aukerakoa], Basurtuko Unibertsitate Ospitalea, Kardiologia Zerbitzua, Bilbo, Espainia.
Gaztelania	Osakidetza, Organización Sanitaria Integrada Bilbao-Basurto [aukerakoa], Hospital Universitario Basurto, Servicio de Cardiología, Bilbao, España.
Ingelesa	Osakidetza Basque Health Service, Bilbao-Basurto Integrated Health Organisation [aukerakoa], Basurto University Hospital, Department of Cardiology, Bilbao, Spain.
Aipamen laburtua	
Euskara	Osakidetza, Bilbo-Basurtuko ESI [aukerakoa], Basurtuko Unibertsitate Ospitalea, Kardiologia Zerbitzua, Bilbo, Espainia.
Gaztelania	Osakidetza, OSI Bilbao-Basurto [aukerakoa], Hospital Universitario Basurto, Servicio de Cardiología, Bilbao, España.
Ingelesa	Osakidetza Basque Health Service, Bilbao-Basurto IHO [aukerakoa], Basurto University Hospital, Department of Cardiology, Bilbao, Spain.

Filiazio BAKARRA: Osakidetza (adibidea)

Tolosaldeko ESIko Osasun Zentro baten argitalpena	
Aipamen hedatua	
Euskara	Osakidetza, Tolosaldeko Erakunde Sanitario Integratua [aukerakoa], Andoaingo Osasun Zentroa, Andoain, Espainia.
Gaztelania	Osakidetza, Organización Sanitaria Integrada Tolosaldea [aukerakoa], Centro de Salud de Andoain, Andoain, España.
Ingelesa	Osakidetza Basque Health Service, Tolosaldea Integrated Health Organisation [aukerakoa], Andoain Health Centre, Andoain, Spain.
Aipamen laburtua	
Euskara	Osakidetza, Tolosaldeko ESI [aukerakoa], Andoaingo Osasun Zentroa, Andoain, Espainia.
Gaztelania	Osakidetza, OSI Tolosaldea [aukerakoa], Centro de Salud de Andoain, Andoain, España.
Ingelesa	Osakidetza Basque Health Service, Tolosaldea IHO [aukerakoa], Andoain Health Centre, Andoain, Spain.

Filiazio BAKARRA: Osakidetza (adibideak)

AOMSen argitalpena	
Euskara	Osakidetza, Arabako Osasun Mentaleko Sarea [aukerakoa], Arabako Ospitale Psikiatrikoa, Vitoria-Gasteiz, Espainia.
Gaztelania	Osakidetza, Red de Salud Mental de Araba [aukerakoa], Hospital Psiquiátrico de Araba, Vitoria-Gasteiz, España.
Ingelesa	Osakidetza Basque Health Service, Araba Mental Health Network [aukerakoa], Araba Psychiatric Hospital, Vitoria-Gasteiz, Spain.

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren Zerbitzu baten argitalpena	
Euskara	Osakidetza, Zuzendaritza Nagusia, Parte-hartzeko eta Berdintasuneko Zerbitzua, Vitoria-Gasteiz, Espainia.
Gaztelania	Osakidetza, Dirección General, Servicio de Participación e Igualdad, Vitoria-Gasteiz, España.
Ingelesa	Osakidetza Basque Health Service, Directorate General, Participation and Equality Service, Vitoria-Gasteiz, Spain.

Filiazio BIKOITZA: Osakidetza + beste erakunde bat (adibidea)

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko eta UPV/EHUko egile baten argitalpena	
Aipamen hedatua	
Euskara	Osakidetza, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratua [aukerakoa], Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea, Pediatria Zerbitzua, Barakaldo, Espainia; Zelulen Biologia Ingurumen Toxikologian Taldea, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Leioa, Espainia.
Gaztelania	Osakidetza, Organización Sanitaria Integrada Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces [aukerakoa], Hospital Universitario Cruces, Servicio de Pediatría, Barakaldo, España; Grupo Biología Celular en Toxicología Ambiental (BCTA), Universidad del País Vasco UPV/EHU, Leioa, España.
Ingelesa	Osakidetza Basque Health Service, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces Integrated Health Organisation [aukerakoa], Cruces University Hospital, Department of Pediatrics, Barakaldo, Spain; Cell Biology in Environmental Toxicology (CBET) Research Group, University of the Basque Country UPV/EHU, Leioa, Spain.
Aipamen laburtua	
Euskara	Osakidetza, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESI [aukerakoa], Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea, Pediatria Zerbitzua, Barakaldo, Espainia; Zelulen Biologia Ingurumen Toxikologian Taldea, UPV/EHU, Leioa, Espainia.
Gaztelania	Osakidetza, OSI Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces [aukerakoa], Hospital Universitario Cruces, Servicio de Pediatría, Barakaldo, España; Grupo Biología Celular en Toxicología Ambiental (BCTA), UPV/EHU, Leioa, España.
Ingelesa	Osakidetza Basque Health Service, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces IHO [aukerakoa], Cruces University Hospital, Department of Pediatrics, Barakaldo, Spain; Cell Biology in Environmental Toxicology (CBET) Research Group, UPV/EHU, Leioa, Spain.

Filiazio ANIZKOITZA: Osakidetza + beste erakunde batzuk (adibidea)

Biogipuzkoako, CIBEReko eta Donostiako Unibertsitate Ospitaleko egile baten argitalpena	
Aipamen hedatua	
Euskara	Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Institutua, Gaixotasun Neuroendekapenezkoei Buruzko Ikerketa Taldea, Donostia, Espainia; CIBERSAM ISCIII, Instituto de Salud Carlos III, Madril, Espainia; Osakidetza, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratua [aukerakoa], Donostia Unibertsitate Ospitalea, Donostia, Espainia.
Gaztelania	Instituto de Investigación Sanitaria Biogipuzkoa, Grupo de Investigación de Enfermedades Neurodegenerativas, San Sebastián, España; CIBERSAM ISCIII, Instituto de Salud Carlos III, Madrid, España; Osakidetza, Organización Sanitaria Integrada Donostialdea [aukerakoa], Hospital Universitario Donostia, San Sebastián, España.
Ingelesa	Biogipuzkoa Health Research Institute, Neurodegenerative Diseases Research Group, San Sebastián, Spain; CIBERSAM ISCIII, Institute of Health Carlos III, Madrid, Spain; Osakidetza Basque Health Service, Donostialdea Integrated Health Organisation [aukerakoa], Donostia University Hospital, San Sebastián, Spain.
Aipamen laburtua	
Euskara	Biogipuzkoa, Gaixotasun Neuroendekapenezkoei Buruzko Ikerketa Taldea, Donostia, Espainia; CIBERSAM ISCIII, Madril, Espainia; Osakidetza, Donostialdeko ESI [aukerakoa], Donostia Unibertsitate Ospitalea, Donostia, Espainia.
Gaztelania	Biogipuzkoa, Grupo de Investigación de Enfermedades Neurodegenerativas, San Sebastián, España; CIBERSAM ISCIII, Madrid, España; Osakidetza, OSI Donostialdea [aukerakoa], Hospital Universitario Donostia, San Sebastián, España.
Ingelesa	Biogipuzkoa, Neurodegenerative Diseases Research Group, San Sebastián, Spain; CIBERSAM ISCIII, Madrid, Spain; Osakidetza Basque Health Service, Donostialdea IHO [aukerakoa], Donostia University Hospital, San Sebastián, Spain.





Egiletza-sinaduren normalizazioa

Gomendio orokorrak

1. Erabili beti sinadura bera.
2. Kasuan kasuko aldizkariaren argitalpen-arauek aukera ematen badute, adierazi ponte-izen osoa, egilea izen-abizen berdinak izan ditzaketen pertsonen bereizteko, eta sexuaren aldagaia sartu ahal izateko Euskadiko ekoizpen zientifikoari buruzko inkestetan.
3. Ponte-izena konposatua bada, erabili gidoiak izenak lotu eta behar bezala indexatzeko.
4. Adierazi bi abizenak gidoi batez bereizita. Abizenetako bat edo biak konposatuak balira, batu multzoko elementuak gidoi bidez. Salbuespen gisa, bi abizenak konposatuak eta ezohikoak badira, izena eta lehen abizena bakarrik erabil daitezke, gidoi bidez elkartuta.

4

Egiletza-sinaduren
normalizazioa

Adibide zehatzak

1. adibidea | Maseras-Ribera María-Elena

2. adibidea | Ibáñez-de-Novia-Fernández Lucía

3. adibidea | de-Llona-Agirre Pedro-Domingo

4. adibidea

Salbuespena: bi abizen konposatu eta ez oso arruntak.

Lehen abizena bakarrik aipatu ahal izango da.

Adib.: Luis Javier Fernández de Larrinoa Sáez de Argandoña

Fernández-de-Larrinoa Luis-Javier



Nola aipatu dokumentu hau:

Osakidetza. Filiazio Institutuzionalaren Gida: ekoizpen zientifikorako izendapen bibliografiko bakarra. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Osasun Saila; 2023.



Osakidetza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD